



Ontziei bizi berri bat emango diegu

Helburuak, aukerak, ideiak eta kontzeptuak

- 1.** Haurrak, eguneroko ohitura errazen bitartez, ingurugiroa zaindu beharraren inguruan sentsibilizatzea, hala nola, argiaren eta uraren kontsumoari arreta jarritz edo hondakinak bereiziz, gero birziklatu ahal izateko.
- 2.** Ingurugiroa abesti, olerki edo matematikako buruketetan txertatzea, eta hiriak nola funtzionatzen duen azaltzerakoan hondakinen gaiari buruz hitz egitea.
- 3.** Ontzi-hondakina objektu erabilgarri eta artistiko bihurtzeko zerbait bezala ikustea, eta edukiontzi egokian utziz gero material berri bilakatuko dela jakitea.



Ontziei bizi berri bat emango diegu


● Jarduera hau zertarako da?

Ontziak segurtasunez manipulatzeko, ontzien bolumenak, neurriak, pisuak, materialak deskubritzeko. Ontziarekin ohitzeko.

● Zer behar dugu?

Era guztietako ontziak, hurrek manipulatzeko bezalakoak.

Zinta itsasgarria, klip-ak, eusteko goma elastikoak.



● Zer egingo dugu?

Ontziekin zein ongi eraiki daitekeen ikusiko dugu. Ontziekin jolastuko dugu, mahaietan, dorreak eraikiz, oreka bilatuz ahalik eta altuenak izan daitezen, eta gainera, ederrak.

¿Jarraituko dugu?

Gelakide, hainbat gela edota hainbat mailatako ikasleen artean ontziz egindako eskultura bat egin genezake, eta atarian jarri ikusgai.

Ontziei bizi berri bat emango diegu

● Jarduera hau zertarako da?

Elkarlaneko eraikuntzari egiazko itxura emateko. Gure hirien inguruan gehiago ikasteko. Eta birziklapenaren bitartez sormena askatzeko, itxuraz balio ez zuen zerbaitek, orain, bizi berri bat duela ulertuz.

● Zer behar dugu?

Oinarri bat hiriaren maketarentzat, mahai bat edo hainbat mahai edo ohol bat izan daiteke. Kartulina-tirak edo zinta itsasgarri grisa kaleak egiteko. Era eta neurri guztietako ontziak (plastikozkoak, latak, brik-ak, kartoizko kaxak eta roiloak, baina beirazko ontzirik ez) eta koloretako paperak, margoak eta itsasgarriak hiria apaintzeko.

● Zer egingo dugu?

Hiri baten maketa, ontziak erabiliz eraikin, etxe eta parke eta guzti. Norberak erabakiko du zer egin, eskolak, suhiltzaile-parkea, dendatxoak, etxeak... Koloretako edukiontzia ahaztu gabe!



Jarraituko dugu?

Zabor-bilketa egingo dugu jarduera egiteko moduko ontziak eskuratzeko. Jolastokikoak izan daitezke, jolas-ordu edo jaialdi baten ondorengoak, edo gertuko parke batekoak. Bildu eta gero bereiztu egingo ditugu, eskularruekin, segurtasunarengatik.

Horrela, ikasleei, littering edo hondakinak uztea zer den azalduko diegu, eta natura zein hiriko espazioak garbi edukitzea zein garrantzitsua den ere bai.